



DIRU ITURRIAK

Enpresaren diru-iturri nagusia birziklatutako materialarekin ekoiztutako piezen salmentak izango dira.

Deskontuak ere eskaintzen ditugu, hala nola, hondakinak eman dizkigun enpresak gure pieza berriak erosten baditu %25-eko deskontua edukiko du. Bestalde, geroz eta pieza gehiago eman orduan eta merkeago salduko diegu enpresei.



Metalak eta plastikoak birziklatzea:

Diru-sarreraren beste iturri garrantzitsu bat metalak eta plastikoak birziklatzetik etorriko da. Gure enpresak txatarra metalikoa bildu, prozesatu eta urtu egingo du, ingurumen-inpaktua murriztu eta jasangarritasuna sustatu nahi duten enpresei sal dakizkiekeen material birziklatuak ekoizteko.

Eskaeren araberakoa:

Gure enpresaren estrategietako bat prezioan izango litzateke geroz eta material gehiago eskatuz gero eta merkeago salduko geniekeela, horrela aprobetxatuz bezeroek gure enpresari piezak erostea prezio baxuagoan lortzeko.



Pertsonalizatutako fabrikazioa:

Piezak neurrira diseinatzea eta fabrikatzea beste diru-iturri gehigarria izan daiteke.

Esportazioa eta nazioartekotzea:

Nazioarteko merkatuetara hedatzeak diru-sarreraren aukera berri bat izan daiteke. Produktu metalikoak eta plastikoak gero eta eskaera handiagoa dagoen eskualdeetara esportatzea estrategia bat izan daiteke bezeroen oinarria eta diru-sarrerak handitzeko.



Alokairuak:

Produkzio gutxi dugunean, labeak alokatu dezakegu; horrela beste enpresek gure makinak erabiltzean beste diru-iturri bat lortu genezakeen.

